

MUNDAKA / Internet zerbitzuaz gain, WI-Fi ere eskaintzen du liburutegiak

Udan bi hilabetez itxita egon da, liburutegiaren informatizazio prozesuan lanean ibili direlako.

Olaia Zaballondo

Mundakako Jose Maria Etxeita udal liburutegiak zerbitzu berria ipini du erabiltzaileen eskura, abuztuaz geroztik WI-Fi zerbitzua ere eskaintzen baitute bertan. Biotza Atela udal liburutegiko arduradunaren esanetan, hainbat lagun hurbildu dira liburutegira beren ordenagailuekin. Uste dut gero eta jende gehiagok egiten duela lan ordenagailu pertsonalekin. Udal liburutegiaren helburua erabiltzaileei zerbitzu berriak eskaintzea da.

Orain arte KZgunearen bitartez ematen zen internet zerbitzua, eta zerbitzu horrek oso ondo funtzionatzen duela dio liburutegiko arduradunak.

Bi hilabetez itxita

Uda honetan Jose Maria Etxeita udal liburutegiak itxita egon behar izan du bi hilabetez, izan ere, informatizazio prozesuan lanean ibili dira hango arduradunak. Oraindik lanak amaitu ez dituztela esan du Atelak. Ale asko dira, ia 15.000. Dena batera egin nahi izan dugu, baina asko dira.

Bestalde, liburutegiko berrantolaketa lanak egiteko ere aprobetxatu dute uda. Aldaketa lan horiek erabiltzaileei erraztasunak emateko asmotan egin dituztela adierazi du liburutegiko arduradunak. Lekuz aldatu dugu dena. Eleberri, poesia eta antzerki liburuak ere eskura ipini ditugu.

Beste alde batetik, liburutegian zeuden liburu zaharrenak kendu dituzte, liburu berriei lekua egiteko. Batzuk biltegian gorde nahi ditugu eta beste batzurekin, Eusko Jaurlaritzak eta Mundakako Udalak uzten dizkigunekin, azoka bat egiteko asmoa dugu. Hala ere, horretarako denbora asko behar dugu, dio Atelak.

Bestalde, zenbait apalategi berri ipini dituzte, dagoen lekua ondo aprobetxatu nahi dute eta.

Aldaketarekin gustura

Liburutegia gehien erabiltzen duten herritarrek aldaketarekin gustura daudela esan du Atelak: orain liburuak hobeto ikusten direla diote. Datorren astelehenetik aurrera udako ordutegia amaitu eta 16:00etatik 20:00etara zabalduko dute.